


orbanaren arima
stain soul

the balde



0€

abuztua | iraila
august | september

PAGNOVA

41



the balde

antsosain 1
31014 iruñea
t. +34 948 42 19 76

Kristobaldegi 14
20014 Ioiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 686 485 980

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publizitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, txuma vazquez, marisa mantxola, ekaitz auzmendi, iker bereziartua, patti martinez.

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella, elixabete ansa

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit, myriam gartzia, sandrine pagnoux.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, frann rezende, ion iriarte, javier cobo.

komikia / comic: txo!?

harpidetza orria / subscription page: aitziber alonso

azaleko irudia / cover image: sandrine pagnoux

aurkibidea / summary: ion iriarte

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Lan berrizaille, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net

LABURRAK IN BRIEF



labirintoaren erbestean (abuztuaren 23ra arte)

Literatur jolas gisa definitu dute Koldo Mitxelena Ganbara aretoan paratu duten erakusketa interaktibo hau. Kolore, forma eta testura aberatseko labirinto honek zentzuei eragiten die hasiera-hasieratik eta haurrentzat pentsatua badago ere, helduek gozatu dute proposamenarekin. Garrantzitsua da haurrek museoak eta arte erakusketak dibertigarriak direla txikitatik bameratzea.

kmk.gipuzkoakultura.net

out of the labyrinth (until august 23)

This interactive exhibition in Ganbara room in Koldo Mitxelena is described as a literary game. This labyrinth that impulses our senses from the very beginning also enriches colors, forms and textures. Even though it is created for children, adults can also enjoy it. The most important aspect is to make children see that museums and art exhibitions can also be fun.

kmk.gipuzkoakultura.net



dantza biarritz (irailak 12tik 21ra)

18. edizioa ospatzen du aurten Dantza Biarritzek. Urtero lez, dantza proposamen ezberdinak bildu dituzte. Beste hainbat jardueretan gertatzen ez den moduan, dantzak ez du muga teknikorik. Mugimendua eta gorputza agortezina delako. Aurten, Senegal, Brasil, Israel, Portugal, Espainia, Mazedonia, Katalunia, Frantzia eta Euskal Herriko taldeen lanaz gozatu ahal izango dugu.

www.letempsdaimer.com

dantza biarritz (september 12-21)

Dantza Biarritz celebrates its 18th edition. Like every year, there is a collection of several dance proposals. Unlike other activities, dance doesn't have technical limits because movement and body are endless. This year, we can enjoy groups from Senegal, Brazil, Israel, Portugal, Spain, Macedonia, Catalonia, France and Basque Country.

www.letempsdaimer.com



MUGIMENDU AGORTEZINA

surfaren epizentrua

(zarautz wqs 11-14 iraila mundaka wct irailak 29 - urriak 12)
Aurten mailaz igo da Zarautz-ko surf txapelketa. Horrek esan nahi du datorren urtean top 44an egon nahi duten surflari guztiak Zarauzko ondartzara gerturatu beharko dutela bertako olatuak eskainiko duten puntu sorta arrantzatzerara. Etxeko surflariek gainera ez dizkiete gauzak erraz jarriko... Eta zalantza ugariren ostean Mundakak beste behin hartuko ditu nazioarteko 44 surflari onenak. Espero dugu ordurako Aritz osatua eta egurra emateko prest egotea!

www.aspsurf.com

surfers' hot spot

(zarautz wqs 11-14 september mundaka wct sept. 29 - oct. 12)
This year's Zarautz surf competition's status is higher. This means that any surfer who wants to be in the top 44 will have to be part of it. Local surfers won't make that easy, though. And after some hesitation, the 44 best international surfers will take part on Mundaka's competition a bit later. We hope Aritz is in good shape for that time.

www.aspsurf.com





skunkfunk
people do funk

SKFK FALL WINTER 08/09

www.skunkfunk.com

MAKE YOUR
GREEN



ZINEA, ARTEA ETA ROKANROLA

donostiako zinemaldia

(irailak 18-27)

Klasiko bat agenda guztietan. Pelikula klasiko eta ezezagunak ikusteko aukera bikaina eta zinema aretoetan ziurrenik sekula estreinatuko ez diren lanetaz gozatzeko gonbita. Eta perfektua ez bada ere, eskertzen dugu hiritarrei atea irekitzen dizkien goi mailako jaialdi bakarrenetakoa izaten jarraitzea.

www.sansebastianfestival.com

san sebastian film festival

(september 18-27)

A classic event. This is an excellent opportunity to see classic and unknown films that would never be shown in regular movie theaters. And even if it is not perfect we thank organizers for being one of the few high level festivals open to the general public.

www.sansebastianfestival.com



azkena rock

Makro-jaialdietako izen handi eta mediatikoak alde batera utzi eta rock zaleek eskertzen dituzten talde eta bakarlariak ekarriko ditu aurtien Azkena Rock-ek. Kartela ez da itxi oraindik baina beste askoren artean Blues Explosion, Gutter Twins, Blind Melon, The Sonics eta Los Lobos iragarri dituzte. Zein polita den Gasteiz irailan...

www.azkenrockfestival.com

azkena rock

Leaving behind macro festival mediatic names, this year, there will be singers and bands appreciated by the rock fans. These are some of the groups in this festival: Blues Explosion, Gutter Twins, Blind Melon, The Sonics and Los Lobos. Gasteiz in September is wonderful...

www.azkenrockfestival.com



it is not neutral (until October 5)

Some selected works of Daros-Latinoamerica collection will be exhibited in Donostia's Tabakalera. This is the most completed and prestigious Latin American contemporary art collection in Europe and it is worth seeing it in such a unique context.

www.tabakalera.eu

ez da neutrala (urriaren 5 arte)

Daros-Latinoamerica bildumako lanen hautaketa izango da ikusgai Donostiako Tabakalera. European Latinoamerikako arte garaikideaz arduratzen den bildumarik osatuena eta prestigiotsuena dugu eta merezi du ingurune hain berezian ikustea.

www.tabakalera.eu

TABAKALERA

TRY AGAIN

2008ko ekainaren 26tik irailaren 27ra



Koldo Mitxelena Kulturunea. Erakustaretoa
Urdaneta 9. 20006 Donostia-San Sebastián
www.gipuzkoakultura.net
tel.: 943 112 750/6
martes a sábado, de 10:30 a 14:00 y de 16:00 a 20:30



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo


Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala



EOIP IHEO

948 20 63 43
KOMPAÑIA KALEA 6 - 31001

www.pnte.cfnavarra.es/eoip



metro geltokien geltokia

Ugaltzen ari dira metroentzat eraikitzen diren kilometroak. Eta kilometroen ugalketa horrekin batera metro geltoki berriak sortzen dira. Webgune honetan mundu osoko metro geltoki bitxi eta berezienak biltzen dituzte euren inguruko datu eta argazki ugari eskainiaz gainera. Sartu lur azpian...


<http://mic-ro.com/metro/metroart.html>

subway stations' station

Kilometers built for subway stations are increasing. In addition, many new stations have been created. You can see many curious subway stations around the world on this web page. You can also find many data and related pictures. Put yourself underground...

<http://mic-ro.com/metro/metroart.html>

SUBTERRANEAN LANDSCAPES



satellite of god

Glue Society kolektiboak proposatzen duena izugarri gustatu zaigu. Fenomeno batzuk dira. Ondoren ikus ditzakezuen irudietan, bibliako pasarte batzuk erakusten dizkigute baina Google Earth-en begietatik. Adan eta Evaren paradisu, Noeren arka, Moisés itsasoa banatzen eta Jesús gurutzean...


satellite of god

We really like Glue Society's proposal. They are awesome. The images show some of the places in the Bible through the eyes of Google Earth. Adam and Eve's paradise, Noah's ark, Moses dividing the sea and Jesus on the Cross...

makezine

Ez da webgune bat gomendatzen dugun lehen aldia. "Do it yourself" filosofia duen proiektu honetan trikimailu ugari ikasiko ditugu bizitzaren ia edozein alorretan mesedegarri izan daitezkeenak. Eta ez dugu Brikomaniako bizardun ilehoria izan behar hemen erakusten zaizkigun proposamenak gauzatzeko.

www.makezine.com



makezine

This is not the first time we recommend one of these websites. In this project that has a "Do it yourself" philosophy, we can find many tools that can be useful for our lives. And we don't need to be the blonde guy in Bricomania to create what is here proposed.

www.makezine.com






gozatu euskaraz

gure
artean
euskaraz



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



**FREE
VASCOVIA**



free vascovia

Proiektu irekia da free vascovia. Ekialdeko herrialdeetan subirotasuna lortzeko dauden erraztasunak ikusita vascoak balkanetara abiatzeko aldarrikapena egiten dute free vaskoviarrek... eta ez edozein moduan. Ereserki bat proposatu dute eta musikariei eskaini ereserkiaren bertzio bat egitea. Sortatxo kuriosoa bildu dute honezkerok. Zure bertzioa egitera animatzen bazara:

www.myspace.com/freevascovia

free vascovia

This is an open project. Due to the facilities to achieve sovereignty in Eastern countries, free vascovia proclaim Basques' journey to the Balkans...and not any kind of trip. An hymn has been created and musicians have been asked to make a version of it. There are some curious ones already. If you want to create your own version, go to:

www.myspace.com/freevascovia

devoraran

Pornoa neskentzat...edo hori esaten dute sareko aldizkari honetan. Egia esan post pornografiaren asunto guzti honekin askotan zaila da bereiztea zenbat dagoen subentzioetatik bizi den sasi intelektualetik eta zenbat benetako jarreratik. Guri aluak, zakilak, bularrak, ahoak, uzkiak, hezetasuna eta bizioa badago... berdín zaigu pornoa pre edo post den...



www.devoraran.com

devoraran

Pornography for girls... or at least, that is what is advertised in this magazine. In this kind of topics like pornography, it is sometimes hard to see who lives for subsidies and who for a real attitude on the matter. As long as there are vulvas, penis, breast, mouths, anus, humidity and vice, we don't care if it is pre or post pornography.

www.devoraran.com

EMOSTAZU
ZAPLASTEKUE



mixed glances
begirada nahastuak



PAGNON X

bio laburra

Sandrine Pagnoux (1976) diseinatzailer eta ilustratzaile "freelance" paristarra da. XLR8R, Zoot, Wig, Atomica, Max, Marie Claire, Muze, Le magazine Littéraire, Coq sportif, GO sport eta beste hainbatentzat lan egin du. "Metallic mayhem" eta ilustratzaileen biblietako bat den "Illusive 2" bilduman parte hartu du. Iaz Gwangju-ko *Design Biennale*-an parte hartu zuen.



short bio

Sandrine Pagnoux (1976) is a freelance graphic designer/illustrator based in Paris. She has worked for XLR8R, Zoot, Wig, Atomica, Max, Marie Claire, Muze, Le magazine Littéraire, Coq sportif, GO sport, Undiz, and has participated in "Metallic mayhem" and one of the bibles of illustration "Illusive 2". She has also participated in the "Gwangju Design Biennale 2007".

ali hip hop connection

Ali ibn Abu Talib, Muhammad profetaren lehengusu eta Islamaren historian pertsona oso garrantzitsua izan zen. Shii eta Sunni adarren sorreraren erruduna hain zuzen ere. Baina gure bi Ali-ak oso bestelakoak dira. Tokiz kanpo eta lekuz kanpo bizi dira. Logika guztiak hausten dituzte eta iraultza pertsonal horretan Hip Hop musika izan da euren arma.

brother ali: beltzak baino beltzagoa den zuria.

Brother Ali Wisconsin-en jaio zen baina nerabea zenean Minneapolisera bizitzera joan eta bertako hip hop eszenan murgiltzen hasi zen. Nerabezaroan bere arraza eztabaidagai izan zen behin baino gehiagotan. Gehiengoak beltza zela uste zuen. Zurrumuruak isiltzearen, eta bere gogoaren kontra elkarrizketa batean azaldu zuen albinoa zela, bere gurusoak zuriak zirela, baina beltzen artean hazi eta hezi zela eta komunitate beltzari eta bere kulturari zor ziola hainbeste urteetan, bere irudi fisikoagatik sufritutakoa gaingaitu ahal izatea. Oso modu zuzen eta ironikoan kontatu zuen une oro ezberdin sentitzearen sentsazio hau "Forest Whitiker" izeneko kantuan.

"Rites of passage" lehen lana kasetean grabatu zuen bere kabuz. Berehala bihurtu zen ezaguna eta bere musikaren kopiak abiadura bizian zabaldu ziren kalean. Bere bigarren lana "The Undisputed Truth" (2007) grabatzeko baliabideak lortu zituen. Bigarren lan honetan bere hitz zorrotzek dub/roots, reggae eta soul ukituarekin jantzi zituen. Musika alorrean beti aldarrikatu ditu hip hoparen urrezko urteotako egileak (KRS-One eta Rakim nagusiki) eta hitzei dagokionez, inor gutxi libratzen da albino honek mikrofonoa hartzen duenean. "Uncle Sam Goddam" bezalako kantuek eztabaida ugari piztu du eta Brother Ali-k dioen moduan: "beldurgarria da, gutxiagotatik daude batzuk duela urte mordoan Guantanamo giltzapeturik".

Ali Ibn Abu Talib was the cousin of the prophet Muhammad and a very important person in the history of Islam. In fact, he was the one that separated Islam in Shii and Sunni branches. But our two Ali-s are of a very different kind. They live out of place and space. They break all possible logic. In their personal revolution Hip Hop music has been their weapon.

brother ali: the white who is blacker than blacks.

Brother Ali was born in Wisconsin but when he got older he moved to Minneapolis. Once there, he got immersed in the Hip Hop movement. In his youth people would disagree about his race. Most would think he was an African American. At an interview, in order to stop the gossip and against his will, he declared that he was an albino; that his parents were white but he grew up and was raised among blacks. He owes the black community and their culture his efforts to overcome what he suffered due to his physical appearance. His song "Forest Whitiker" tells in a very direct and ironic way how different he would feel all the time.

He himself recorded his first work, "Rites of Passage", on a cassette. It became popular very quickly. Copies of his music were spreading around in high speed.

He earned enough resources to record his second work, "The Undisputed Truth" (2007). In this album he fuses his words with dub/roots, reggae and soul. In the field of music he has always admired contemporary proclaimed hip hop artists (mainly KRS-One and Rakim) and regarding words, this albino artist mentions everyone once he is with his microphone. Songs such as "Uncle Sam Goddam" have been very polemic and according to Brother Ali... "It's scary... there are quite a few who are imprisoned in Guantanamo for less than what I said"





system ali. sistemaren aurka joateko sistema.

System Ali taldean 7 rapero eta 5 musikari ezberdinek parte hartzen du. Bakoitzak bere bizipena dakar bizkarrean. Amankomunean duten gauzarik garrantzitsuenak: Yaffa. Hiri palestinar honetan bizi dira jatorri ezberdineko (Palestina, Israel eta Errusia) taldekide guztiak eta bertoko egunerokotasunari kantatzen diote arabiar eta hebrear hizkuntzaren nahasketatik datorren "yaffawiay" kale hizkuntzan. Irudikatu dezakezue taldekideen arteko harremana ez dela errazegia izan. Bizi diren tokian kontutan hartuta eta kultura, erlijio eta pentsamolde ezberdineko jendea izanik, asko kostatzen zaie euren proiektuari eustea. Musikalki ere ibilbide ezberdineko jendea da eta hain zuzen ere honek egiten du euren proposamena hain aberatsa eta originala izatea. Arabiar musika tradizionala, reggae-a, rock-a eta hip hop-aren nahasketa honek mugak gainditu eta mundu osora iristen hasi da. Orain arte, grabaketa amateurretan eta kasete eta cd kopien bitartez banatu dute euren musika. Palestinan ez dago musika jendeari hel arazteko beste modurik. "Pirateo" famatuaren beste aurpegia erakusten digu System Ali-k, nahiz eta susmatzen dugun industriari ez zaiola gehiegi komeni horrelakoak aireeratzea. Iaz, eta lehen aldiz, grabaketa estudio profesional batetara sartu ziren. Grabaketan MC Ty bezalako hip hop izarra izan dute ekoizle eta laguntzaille lanetan.

system ali. a system to fight the system.

There are 7 rappers and 5 musicians in the group System Ali. Each carries his own story in his back. The most important thing they have in common: Yaffa. Even though they come from different places (Palestine, Israel and Russia), they all live in this Palestinian city. They sing about the every-day life in Yaffa in "yaffawiay," a colloquial mixture of Arabic and Hebrew. You can imagine that the relationship among the group members has not been easy. Considering where they live and the fact that each of them come from a different cultural and religious background, it is hard from them to hold on to the project. Music-wise their careers have also been very different and this is precisely what makes their project so rich and original. Their mixture of traditional Arabic music, reggae, rock and hip-hop overcomes any limits and it is reaching every corner of the world. So far, they have reached their audience through amateur recordings, cassettes and CDs. In Palestine there is no other way one could reach the audience. System Ali shows the other side of illegal music markets, even though the music industry won't agree. Last year and for the first time, they worked at a professional studio. The hip hop star MC Ty has been their producer and assistant in the recording process.



no comment



argazkia / shot: estrella tatrit • tramacastilla de tena



Ezpainak beltz-beltzak dituzte. Euren zuzeneko emanaldiak festa basatiak izaten dira. Biluzik, mozkortuta, elkarri musu ematen, oilo batekin dantzan edo soinu mahaiaren kontra pixa eginez amaitu dituzte kontzertuak baina baina gehiagotan. Ezpain beltz-beltzak dituzte ahobeto batzuk direlako eta muturreko bat baino gehiago jaso dutelako... merezia ziurrenik. Baina ezinezkoa da Black Lips ez maitatzea.

Eta hori frogatzeko hiru adibide jarriko ditugu: New York Times-ekiaz "talderik langileena" (Hardest Working Band), saria eman zien Austin, Texas-en ospatu zen South by Southwest musika jaialdian 12 kontzertu eskaini zutelako hiru egunetan zehar... Black Lips maitatzeko bigarren arrazoiak izako urrian eman ziguten. AEBtako telebista nazionalan izan zuten estreinua "Night with Conan O'Brien" saioan egin zuten. Eta Bush-ekin eta New Orleans-en gertatutako uholdeekin akordatu ziren "O Katrina" kantatuaz. Ez dituzte berriro gonbidatuko... Eta hirugarren arrazoiak gertukoagoa da. Euskal Herrian bira egindakoak dira. Gaztetxe, areto eta tabernetan jo izan dute... eta Legazpiko etxe partikular batetan emandako kontzertua honez gero mitikoa bihurtu da (youtuben ikusi daiteke). Atlantako mutil hauek 2000. urtean elkartu ziren geroztik rock garajero eta zikina egiten dute. Cole Alexander, Jared Swilley, Ben Eberbaugh eta Joe Bradley izan ziren haserako "ezpain beltzak". 2002. urtean Eberbaugh kotxe istripu batean zendu zen. Ian St. Pé-k bete zuten bere tokia.

Atlantako talde underground honek, rock, blues, doo-wop, country eta punk estiloak nahasten ditu konplexurik gabe eta uda honetan datorren urterako atera nahi duten diskoa prestatzeko zita egin dute. Ziurrenik beranduegi da. Famatuak dira honez gero, eta gisa honetako artikuluek ere ez dute laguntzen, baina guk ez dugu itxaropenik galtzen... akaso egunen batean gure etxean antolatutako festan joko dute "muturbeltz" hauek!

They have really black, black lips. Their live shows are truly wild parties. They've ended some of their performances naked, drunk, kissing each other, dancing with a chicken and pissing up against the sound desk. They've got black, black lips because they're big-mouths and they've been on the receiving end of a few hidings in their time alright. Probably deserved them, too.

But it's impossible not to love Black Lips. Here are three examples of what we are on about. One, last year The New York Times gave the prize 'The Hardest Working Band' to them because they gave 12 concerts in 3 days at the South by Southwest Music Festival in Austin, Texas. Reason number two for loving these guys happened last October: They appeared on national American television for the first time on the Night with Conan O'Brien show. And they remembered Bush and the floods in New Orleans. So they sang 'O Katrina'. They won't be asked back again... The third reason brings us a bit closer to home. They've toured the Basque Country. They've played in Gaztetxes, small concert halls and bars. They even played a private by-now mythical concert in a house in Legazpi (check it out on youtube.)

These boys from Atlanta got together in the year of Our Lord 2000 and have played dirty garage rock ever since. Cole Alexander, Jared Swilley, Ben Eberbaugh and Joe Bradley were the original 'Black Lips'. Eberbaugh was killed in a traffic accident in 2002 and his place was taken by Ian St. Pé. This underground band have no qualms about mixing rock, blues, doo-wop, country and punk and are currently preparing their latest offering which will be released next year. It's probably too late now. They are becoming famous and this type of article doesn't really help, but we will not lose hope... maybe one day these 'Black Lips' will play at a party in one of our garfs. Who knows!

black lips





*Zer egin behar duzu
asteburuan?*

*Euskal Herriko kontzertuen
agendarik osatuena eta askoz gehiago...*

bakarrik www.entzun.com web atarian!

WWW.ENTZUN.COM

betikoa eta gehiago



AUDIO

testua/by: arkaitz villar

De Pedro

De Pedro

Emi 2008

La Vaca Azul edo 3.000 hombres bezalako taldeetako sortzaile dugu Jairo Zavala. Bakarrik dator orain eta bere bakardade horretan bidean aurkitutako pasadizoak abesten dizkigu. Mexikon grabatu duen diskoan Amparo Sanchez edo Joey Burns (Calexico) bezalakoek kolaboratu dute eta doinu desertiko, bakarti eta malenkonikoak bildu dituzte. Mugako abestiak dira hauek, soinu bero eta tempo geldoan datozenak.

Jairo Zavala is the man behind groups like La Vaca Azul or 3000 Hombres. This time around he's on his own and he sings of things that have happened to him on this solo trip. He recorded the record in Mexico and had help from the likes of Amparo Sanchez and Joey Burns (Calexico.) It's full of melancholic, lonesome desert-sounding melodies. Frontier songs, warm sounds in slow time.

Jamie Lidell

Jim

Warp 2008

Jamie Lidellek "Multiply" diskoan hasitako norabidearekin jarraitu du "Jim" disko berrian. Oraingoan ordea elektronika alde batera utzi eta soulean oinarritu da. Bilakaera honetan bere ahotsa asko landu du musikari britaniarrek eta beste hamarkada batetara garamatza erregistro horrekin. Doinu organikoak nagusi diren honetan "Another day" edo "Hurricane" bezalakoekin gelditu gara gu: Gaye, Redding, Charles... berpiztu eta soula berpiztu du Lidellek.

On his new LP "Jim" Jaime Lidell carries on from where he left off on his album "Multiply". He drops electronica for soul on "Jim". This evolution sees this British artist really work on his singing and this register harks back to a different decade. Backed by a normal band, this is his best piece of work to date. Organic melodies are to the fore on "Another Day" or "Hurricane", two of the songs that have really grabbed our attention.

Kerobia

Materia organikoa eta gainerakoak

Autoekoizpena / Gor 2008

Ausarta da talde iruñearra. Erronka handiak gustoko dituen horietakoa. Honela, proiektu berria hiru zatitan banatu dute. Lehen emaitza orain argitaratu badute beste biak 2009an kaleratuko dituzte. Bere eboluzioan eraginak alde batetara uzten ikasi du taldeak. "Asteroideen antzokian" eta "Mezu bat zuretzako" bezalako kantuetan argi erakusten dute soinu propioa eraiki dutela eta proposatzen duten unibertsoa horren sakona izatea oso gustuko dugu.

This group from Iruñea are a daring lot. They like a big challenge. They've split their latest project into three different parts. They've just released the first part and the other two will be released in 2009. Their evolution has finally seen them learn how to leave aside their influences. On songs like "Asteroideen antzokian" and "Mezu bat zuretzako" they show they have created their very own sound and we really like the fact that their new universe goes so deep.

Vampire Weekend

Vampire Weekend

XL Recordings 2008

Punk eta New Wave-a nahasten duen Brooklyngo taldea. Dagoeneko entzungo zenituen eta bestela entzun beharrean zaude. Ez da nobedade bat baina urteko diskoa izango denez, hemen erakutsi eta gomendatzea pentsatu dugu. Talking Heads bezalako taldeen eragina alde batera utzi gabe, aspaldian eskuratu dugun disko freskoena da hau. Proposamen alai, zuzen eta energikoa. Etorbizuna duen taldea.

This group from Brooklyn mix New Wave and Punk in their songs. You'll probably have heard them by now and if you haven't you should. There's nothing new on show but seeing as it's record of the year we thought we'd bring it along here for you all to see (and hear.) Shades of Talking Heads and the most refreshing record we've heard for a long time. This lot will go far.

Zein?

Ahari Talka

Noiz Pop 2008

Haiei buruz inork ezer gutxi bazekien ere, azken hilabeteetako albiste izan da Zein?-en itzulera. Hamarkada hasierako gure talde gustukoenetarikoa izan bazen, horretan jarraitzen dute disko berriarekin. Power pop eta rockaren nahasketa proposatzen digute oraingoan, ohiko letra sendoek lagunduta eta ez hori bakarrik, aurreko diskoetako maila mantentzen jakin baitute. Bada eszenarik gurean eta horrelako taldeak martxan dirauten bitartean itsasoak badu esperantzarik.

Even though a short while ago hardly anybody had heard anything about this band, their return has been the talk of the town for the last few months. They were one of our favourite groups at the start of the decade and they continue to be so with this, their latest release. Power pop and rock, strong lyrics and they've kept up the standard of their previous releases. There's a scene going on in these neck of the woods and as long as there are groups like this, there's hope for us all yet.

Ladytron

Velocifero

Netzwerk 2008

Aldizkari batean hilabeteko disko txarrena izendatu zuten hau. Horrekin konturatu nintzen tendentzi aldizkariak ez dakitela zer egin guay izateko. Ni ordea oso guay naizenez lan honen alde egin dut. Liverpooleko taldeak argitaratu duen disko hobereana ez bada ere "Velocifero"-k asko du esateko. Batez ere taldeak beti erakutsi duen arima ilun hori indartu dutelako. Kantu errezetatik ihes egin eta "Black Cat" edo "Runaway" bezalakoekin erakusten dute taldeak konposaketarako duen maila. This has been called the "Worst record of the month" in a trendy magazine. That made me realise that 'latest tendency' mags really just don't know what to do to be hip. And seeing that I'm a real hip dude, I'll throw my cap in the corner for this disc. It's certainly not the best offering we've had from this Liverpool band but "Velocifero" certainly has its bit to say. Especially because the band have really strengthened that dark side to their music. They've turned their backs on simple songs and the likes of 'Black Cat' and 'Runaway' show just how good they are at writing songs.

kautxuaren hiri galduak

testua/by: uxeta labrit

Pasadan mendeko hasieran Amazonas ibaiaren alboetan oihanak eskaintzen zituen aberastasunak profintatu nahi izan zituzten munduko potentzia ekonomikoek. Azkar garatzen ziren teknologiei esker, garaiko gizarte aurreratuek ustiatzeko aberastasun iturri gisa ikusten zuten natura. Naturak ordea, beti erakutsi du bere burua defenditzeko gaitasun berezi eta beldurgarria. Amazonas-ko Xingu indigenek dioten moduan –oihana gizakiaren aurretik zegoen eta oihana gizakiaren ostean egongo da–.

Baina beno, Sting-i utziko dizkiogu filosofia berde eta izpiritualak. Guri, naturaren indar mendekatzailerak interesatzen zaigu eta hain zuten ere kamara azkarrean gertatuta diruditen mendeku horietako bat ekarri nahi dizuegu gogora: Fordlandia eta Belterra.

Lorejale astun baten moduan jarri aurretik, esan bezala pasadan mendeko hasieran Amazonas-ko lehengaiak esplotatzeko lasterketari hasera eman zitzaion. Horrek aberastasuna ekarri zuen eta aberastasunak handikieria. Oihanaren erdian zegoen Manaus herrixkan Atenas berria sortzen hasi ziren. Besteak beste bertan eraiki zen opera famatuan garaiko izarririk handienak abestu zuten. Oihaneko bero eta hezetasunak, malariak eta sukar kronikoez gizakia jainkoto egiten dutela esaten dute (Werner Herzog eta Klaus Kinski-ren harreman ezegonkorrek emaitza ezin hobea eman zuten errealitate hau deskribatzerako orduan "Agirre la colera de Dios" (1973) eta "Fitzcarraldo" (1992) filmak ikustea duzue etxekolan).

Manaus-en adibideari jarraiki, oihana besterik ez zegoen tokietan hiri berriak eraikitzen hasi ziren. Horien artean Henry Ford enpresa gizon dirudunak 30. hamarkadaren hasieran sortu arazi zituen Fordlandia eta Belterra. Britainiar eta holandarrek zuten kautxuaren monopolioa hautsi nahian, Ford-ek Brasil eta AEBtako gobernekin negoziatu eta 20 garaiko milioi dolar gastatu zituen Amazonas sakoneko Tapajós ibaiaren hertzean 10.000 kilometro karratu erosi eta *hebea brasiliensis* -kautxu arbola-landatzen.


Fordlandia eta Belterra AEBtako hiri baten antolaketa jarraituaz eraiki ziren. Golf zelaia, egurrezko etxeak, pinudiak, eliza, Brasilgo lehen ebaketa estetikoak egin zuten ospitalea, "Hase" izeneko dantza kluba, dendak, hanburgesa jatetxeak eta abar...Gizarte banaketa bortitzak gobernatzen zuten Fordlandia eta Belterran. *Villa Americana* izenekoan gringo zuriak bizi ziren, *Mensalitas* izeneko kalean, klase garaiko eta zerbitzuetara zuzenduak zeuden brasildarrak eta periferian eraiki zen "*langileen kalea*" izeneko kale originallean... langilea natiboak.

Baina Amazonas sekula bisitatu ez zuten Ford-ek hanka sartzeak bata bestearen ostean egin zituen: 9-15 orduko lanegunak Amazonas heze eta sargoritsuan; indigenei zapatak derrigorrez jantzi arazten zizkieten; AEB-tako kopia ziren etxeetan beroa biderkatzen zuten kristal handiak jarri zituzten eta okerrena, Ford puritanoak alkohola debekatu zuten. Azken neurri honek langileen errebolta piztu zuten. Ejertzito brasildarrak iraultza txikia itzali zuenean langile askok taberna eta putetxez beteta zegoen *Inocencia* irilara egin zuten ihes.

Ford-en botanikoez gainera ez zuten tropikoa ezagutzen. Bertan landatutako kautxu arbolak bata bestearengandik gertuegi landatu eta plaga ezberdinen jomuga izan ziren. Fordlandian ez zen latex uzta bakarria izan. Belterran 1942an jaso zuten lehendabizikoa eta 750 tona izan ziren, aurreikuspena 38.000 tonakoa zenean. Kautxu ekoizpena uste baino urriagoa izateaz gain, kautxu sintetikoaren asmakizunak estalkia jarri zion Fordlandia eta Belterra izeneko ametsaren hilkutxari. 2. guda mundialarekin batera Amazonastik ihes egin zuten gringoek (eta eurekin eraman zuten makineria guztia).

Egun Belterran familia eskas batzuk bizi dira eta Fordlandia abandonaturik dago, Joseph Conrad-ek deskribatu zuten "Illunbeen bihotzera" egindako bidaiaren beste adibide baten modura.





the lost rubber cities

At the beginning of the last century, the riches offered by the jungles on the banks of the River Amazon were the object of plunder by the great world economic powers of the time. Aided by swift progress in technology, these countries viewed nature as an overflowing source of wealth and riches. Nature, however, has always shown a special and frightening ability to defend itself. As the Xingu tribe from the Amazon put it: 'The jungle was here before mankind, and it will still be here long after mankind has disappeared.'

Well, anyway, we'd better leave the green spiritual philosophical stuff to Sting. What we are interested in is nature's power of revenge. In particular, we shall look at the cases of Fordlandia and Belterra, where different camera shots taken over time will speed us quickly through nature's years of revenge.

Not wishing to beat a veggie-eating-cross on your heads, we shall, however, recall what we said in the first paragraph: the birth of the previous century also signalled the start of the race to strip the Amazon of its immense store of natural riches. This created wealth and the vanity that inevitably accompanies. Manaus, a village in the middle of the jungle, became the new Athens. The biggest opera stars of the period all performed at the Opera House built there. They say that the heat and humidity of the jungle along with its malaria and chronic fever makes gods of men. The unstable relationship between Werner Herzog and Klaus Kinski superbly showcases this sentiment in the films 'Agirre and The Wrath of God' (1973) and 'Fitzcarraldo' (1992) To be watched as homework, please.

Following in the footsteps of Manaus, the plunderers started to build towns and cities where originally there was nothing but jungle. Wealthy American entrepreneur Henry Ford built Fordlandia and Belterra at the start of the 1930s. He wanted to break the stranglehold monopoly on the rubber trade enjoyed by the British and the Dutch. Ford negotiated with the Brazilian and American governments and spent \$20,000,000 dollars of the time on 10,000 square kilometres of land along the banks of the River Tapajós. He then set up huge *hebea brasiliensis* – the rubber tree – plantations.

Fordlandia and Belterra were built according to standard city layouts in the USA. Golf courses, wooden houses, pine groves, the church, the hospital that would perform the first plastic surgery in Brazil, the 'Hase' Dance Club, shops, hamburger joints, etc... There was distinct social separation in Fordlandia and Belterra. The white gringos lived in *Villa Americana*, on *Mensalitas* Street. The Brazilian upper classes and their servants. The native workers lived on Workers Street, on the outskirts.

But Ford, who never set foot in the Amazon jungle, made one stupid mistake after another. Workdays were from 9 to 15 hours long in the humid, close and stuffy jungle clime; the natives were forced to wear shoes; in the houses that were exact copies of houses in the USA, glass windows that multiplied the heat were installed; and worst of all, the puritan Ford banned alcohol. That was the last straw for the workers, who revolted. When the Brazilian Army put down the revolt, many of the workers escaped to the bar and brothel-ridden Isle of *Inocencia*. In addition to all of that, Ford's botanist didn't know or understand the tropics. They planted the rubber trees too close to one another and they soon became the target of different plagues. Fordlandia never witnessed a single harvest of latex. Belterra managed its first harvest in 1942, all 750 tonnes of it. Provisions were for a harvest of 38,000 tonnes. The extremely low-yield harvests coupled with the invention of synthetic rubber were the last nail in the coffin of the Fordlandia and Belterra dream. The gringos fled from the Amazon Jungle at the outbreak of WWII (and they took all the machinery with them.)

Today, a few families inhabit Belterra and Fordlandia is abandoned... Just another example of what Joseph Conrad describes in the "Journey into The Heart of Darkness".



diseinua, internet
eta argitarapenak



IZAN BILBOTARRAK BAINO HARROAGOA DEBALDE DENA ORDAINDU EZAZU!

LADINAMOK MILA HARPIDE BEHAR DITU
etorkizuna bermatzeko
(edo bestela, 1000 aldiz harpidetuko den norbait topatu).

DAME PA'
GASOLINA!



Oraindik aldizkaria ezagutzen ez baduzu bota iezaiozu
begirada bat sareko bertsioari: www.ladinamo.org/ldnm

E. L. Doctorow, J.G. Ballard, David Harvey, Sven Lindqvist, Inmortal Technique, Wu Ming, Richard Linklater, Ursula K. Le Guin, Ian MacKaye, Mike Davis, TV On The Radio, Jello Biafra, Mercedes Álvarez, Kim Stanley Robinson, Ignacio Echevarría...eta abar luze batekin elkarriketak edo eta Santiago Alba Rico, Constantino Bértolo, Johnny Rotten, Bruno Galindo, Manuel Delgado, Nacho Vegas...eta beste hainbaten artikulok.

www.ladinamo.org/suscripciones

zer jantzi?



diseinu grafikoa
komunikazioa
web diseinua
irudi korporatiboa
edizioa
maketazioa
ilustrazioa
packaging
publizitatea

estudio**bitarte**

marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea
t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22
bitarte@estudiobitarte.com
www.estudiobitarte.com



memoriaren mapa...maparen memoria

Hiriak etengabe eraldatzen diren munstroak dira. Eta "munstroari" jaten emateko beharrezkoa izaten da lur berria lortzea. Azken urteotan gure hiri inguruetakoa baserri eta landak desagertzen joan dira hazkunde honen mesedetan.

Josu Tellabide eta Asier Agirresarobek Donostiaren hazkundeak desagertu arazi dituen baserri eta eraikinak jaso dituzte *101 bazter Donostiako* liburuan. Donostiak, bere zabaltze prozesuan, bazterretan zeuden hainbat baserri eta lur sail desagertu arazi, edo zehatzago esateko, eraldatu egin ditu. Eta zorritarrez, bazter hitza erabiltzen dugunean, ez da erabilpen inozentea. Garai bateko bazterra, hiriaren periferia nahi baduzue, eremu ezberdina zen, baserriak bere beharretara moldatutako paisaia. Ez dugu ordea irudi idiliko-folklorikoa soilik nabarmendu nahi. Gauza bera gertatzen bai da periferia industrialarekin. Hiriaren zabalkunde horretan ez da soilik nekazaritza desagertzen joan, ingurune industrialak ere suntsitu dugu. Gu, Europako bizi maila altuenetakoa dugunok, "behar den moduan" bizi gaituzten. Mapen balioa egunerokotasunak jartzen du. Mapa errealitatera atxikitzen den heinean balio du. Liburu honekin ordea iraganaren mapei erreparatu diegu. Mapa horietan kokatzen ziren baserri, plaza eta bestela eraikuntzei kasu egiten diegu. Horietako asko desagertu edo desagertzeaz daudelako, eta fisikoki existitzen ez badira ere hiritar eta herritarren memoriaren mapan bere tokia dutelako. Baserri, sagardotegi, lantegi eta eraikuntza ahaztu horien bitartez, gure memoriak hitz, ohitura eta pertsonen geografía horiek marrazten dizkigu.

Kontua ez da aitzineko oro mantentzea. Argi dago aurrera begiratu beharra dagoela eta bide horretan bai paisaiak, gauzak eta pertsonak desagertu behar izaten dutela. Gai honetaz hitz egiten dugunean, nostalgiak askotan nahiko kutsu erreakzionarioa izaten du. Baina ariketa ederra eta beharrezkoa deritzogu memoriaren garai batetako mapa horiek gordetzea. Eta horregatik dira eskertzekoak "101 bazter Donostiako" bezalako proiektuak.

map of memory...memory of map

Cities are monsters that change constantly. New pieces of land are needed to feed them. Lately, many surrounding farms and fields have disappeared in order to benefit this growth.



Josu Tellabide and Asier Agirresarobe collect buildings that have been sacrificed by the growth of Donostia in "101 bazter Donostiako". This city, in its process of expansion, has made several of the farms and open land disappear and transform. Unfortunately, when we use the word corner, it is not an innocent use. That corner, the outskirts of a city were once a different area, a piece of landscape that farmers cultivated for their needs. However, we don't want to highlight just the idyllic-folkloric side of the story. The same thing happens with the industrial periphery. In that growth, not only does agriculture disappear, but the industrial surroundings are destroyed as well, so that those of us who live in the highest levels in Europe can maintain a decent life.

The value of maps is imposed by daily life. Maps are useful as long as they adapt to reality. In this book, we focus on maps of the past. We concentrate on farms, city plazas, and other buildings located in these maps because they are about to disappear or because they have a place in people's memory. Our memory crafts the geography of words, customs and people throughout those farms, cider cellars, factories and forgotten buildings.

The goal is not to preserve everything in ancient times. It is clear that we have to acknowledge that roads, landscapes, things and people have to disappear. When we talk about this, nostalgia plays an important role. However, we think it is very important and necessary to keep the maps of the past in mind. This is why we are grateful for "101 bazter Donostiako".



MONITOR CELL
&
TERENCE



D **A** **M** **I** **S**
elkarri begira- Glamourra, "by the face" bila datozen sasi-gonbidatuak eta komunikabideei jaten ematen dieten dozenaka ergelkeriaz gain, Zinemaldi batek, beste inon ikus eta aztertu ez daitezkeen edukiak eskaini behar ditu. Aurten, bi zuzendari guztiz ezberdinak jarriko dizkigu aurrez aurre Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak.

Nik Moniccelli ez nuen zuzendari gisa deskubritu 1999. urtean Zinemaldiak "Boom italiar erara" atala antolatu zuen arte (aurreko urtean gerra osteko italiar zineari ere tartea eskaini zitzaion "Ogia, maitasuna eta fantasia" izeneko zikloarekin). Emanaldi horietako batean deskubritu nuen aspaldian nire burmuinean urratsa utzi zuen pelikula baten egilea zela Mario Moniccelli. "Amici miei", hemen "Los cuatro" gisa ezagutzen dena. Ez da bere filmik onena, ez eta ezagunena ere, baina pelikulak gordetzen dituen une batzuk ordainezinak dira. Gizon heldu eta ganberro batzuen bihurrikerien kontakizuna da. Hain zuzen horretan datza filmaren arrakastaren sekretua. Berez serioak eta formalak beharko luketen gizonak pitokeriak egiteko elkartzen dira. Filmaren umorearen atzean, eta protagonista bakoitzaren drama partikularrak ikusita, bada sakoneko karga bat, nik haurtzaroen ikusi ez nuena baina bigarren ikustaldian filma gehiago maitatzea eragin ninduen. Jabetuko zineten zenbateko inpaktua izan zuen film hark nigan, Moniccelliri dagozkion lerroak honezkerok jan ditudalako eta ez dut bere filmografiaz eta lanaz apenas ezer esan... baina ez al da zuzendari bati gertatu dakioken gauzarik ederrena? bere lanak utzi duen urratsa bere izenaren gainetik egotea...

Terence Davis zine zuzendari ezezaguna da gure artean. Liverpool-en jaio zen sortzaile honek idazle, gidoilari eta aktore gisa ere lan egin du. Bere begiradak beste zentzuekin batera lan egiten du. Sentimenduak baino sentsazioak bilatzen ditu. Bere pelikuletan, pertsonaiek emozioei eutsi egiten diete. Erljioak eta dogma moralek gizartean izan duten eragina eta modu berean honek gizaki bakoitzari eragiten dion modua islatzen du bere istorioetan. Homosexualitatea ere erreferentzia da bere lanetan. Bere istorioek sinfonia baten hezurdura izaten dute. Gurean nekez ikusi ahal izan dugu haren pelikularik zine aretoetan estreinatuta. Gutxiengo batek ezagutzen du haren lana. Autore eta artisaua zinema da.

Terence Davis-ek ez du filmografia zabalegia. Erritmo eta jarrera bereziarekin lan egiten duen zuzendaria da. Bere lanen artean "The Neon Bible" (1995) -John Kennedy Toole-ren "beste" nobelaren adaptazioa-, "The house of Mirth" (2000) eta aurten Cannes-ko jaialdian aurkeztu duen "Of time and the city" dokumentala, non Liverpool, jaioterria protagonista bihurtu eta saminez eta ironiaz hitz egiten du berreskuraturako zeluloide zati zahar eta musika garaikidearen laguntzarekin. Donostiako Zinemaldian izango du, ziurrekin beste inon topatuko ez ditugun lan hauek ikusteko aukera.

face to face- Apart from the glamour, the freeloading quasi-guests with a neck like a jockey's, and all the usual nonsense to keep the assembled media happy, the International Donostia Film Festival should give people the chance to view and investigate films and work they cannot find elsewhere. This year's edition of the film festival sees it bring two completely different types of filmmaker face to face.

I didn't discover Moniccelli as a director until his work appeared in the "Boom Italian style" offering in the 1999 Zinemaldi (the previous year it had also made space for post-war Italian cinema in the cycle titled "Bread, love and fantasy"). I saw one of those screenings and a film by Mario Moniccelli really left a lasting impression on me. "Amici miei", better-known here as "Los Cuatro". It's not his best film, nor is it his best-known one, but some of the scenes in the film are absolutely priceless. The film tells of the pranks that a few adult rascals get up to. This is the secret of the film's success. Grown-ups who really should be more serious get together to act like spotty teenage hormone-demented jerks. Underneath the humour in the film, each individual case carries a more profound dramatic charge that I didn't see in my childhood. I caught it the second time I saw it and it made me love it all the more. Well, you can certainly imagine what kind of impact the film had on me because I've hardly got around to mentioning his other films and work and I've already used up all the space I have for him... but is that not the most beautiful thing that can happen to a film director? For his work to leave a bigger impact than his name.

Filmmaker Terence Davis is virtually unknown here. This Liverpool-born director has also worked as a writer, a scriptwriter and as an actor. His vision works with the other senses. Rather than sentiments, he reaches for sensations. In his films, his characters hold on to the emotion. His stories reflect the influence of religions and their dogmas on society and how these have affected individual members of society. Homosexuality is another reference point in his work. His stories have the backbone of a symphony. It's extremely difficult to see his films in cinemas here. A small few know his work. His films are those of an author and craftsman.

Terence Davis hasn't got that many films to his name. He's the type of director who have a special attitude and rhythm when it comes to working. Amongst the films he has made are "The Neon Bible" (1995) - an adoption of John Kennedy Toole's "other" novel -, "The House of Mirth" (2000) and the documentary he premiered at this year's Cannes Festival titled "Of time and The City". In it, Liverpool, his native city, is centrepiece as he speaks with pain and irony over old bits of film of the city accompanied by contemporary music. The International Donostia Film Festival is probably the only place where you'll get the chance to see these films.

sofa zatar surf

Internet bidez elkar ezagutzen duen jendeak afizio bereziak izan ditzake. Guk, blog horietako batean sofa zatarraren gainean surf-a egitea atsegin duen talde bat topatu dugu. Eta ale honetan surf artikulu bat sartzeko asmoa genuenez, ideia gustatu zaigu. Bide batez, proposamen honekin dekorazio artikulua egiteko ere profitatzen dugulako. Surfilarri hauek ez lirateke inoiz surf aldizkari batean azalduko. Sofa hauek ez zenituzke sekula dekorazio aldizkari batean ikusiko. Horregatik daude **the balden**. Sofa zatarrak, surfista baldarrak eta ideia petralak atsegin ditugulako.





ugly couch surfing

